



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SALA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

EBAZPENA, 2022ko APIRILAREN 8koa, EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN ARABERA ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA, ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA, IZENPE, S.A. ERAKUNDEAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LANKIDETZA-ERAKUNDEAREN BEREIZGARRIA IZATEN JARRAITZEN DU.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ematen dizkion ahalmenak erabiliz (otsailaren 16ko 3/2012 Legearen bidez aldatu zen lege hori), honako hau adierazten du:

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2015eko abuztuaren 31ko, Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariak emandako Ebazpenaren bidez, «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundea» izaera aitortzen zaio ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA, IZENPE, S.A. erakunderi Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen aitortpena sortu zuen otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuak horretarako eskatutako baldintzak betetzen zituelako, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 41. artikuluan oinarrituta. Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen esparruan.

Bigarrena.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen aitortpena arautzen duen otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuaren 14.1 artikulua ezartzen duena aintzat hartuta, emandako aitortpena indarrean egon dadin, bi urtean behin, «Erakunde laguntzaileak emakumeen eta gizonen ekintzak egiten jarraitzen duela egiaztatu beharko du Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari». Hala, txosten bat bidali beharko da, Planean aldi horretarako diseinatutako ekintzen % 70 baino gehiago gauzatu direla, bai eta diagnostikoan jasotako abiapuntuko adierazleen egoeran izandako aurrerapenak ere izan direla egiaztatzeko, baldintza horiek ez betetzea justifikatzen duten arrazoi objektiboak daudenean izan ezik.



Manuel Iradier, 36 – Tel.: 945-01.67.00 – Fax: 945-01.67.01 – E-mail: emakunde@euskadi.eus 01005 – Vitoria-Gasteiz





ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari dagokio ebazpen hau ematea, Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 31ko 214/2006 Dekretuaren 17. artikuluan emandako eskumenen arabera (2 eta 3. artikulua).

Bigarrena.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen aitormenari eusteko egin beharreko jarraipenari begira ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA, IZENPE, S.A. erakundeak bidalitako dokumentazioa aztertuta, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak uste du nahikoa dela erakundeak horretarako beharrezkoak diren lege-eskakizunak bete dituelako.

Horregatik guztiagatik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA, IZENPE, S.A. erakundeak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen bereizgarria izaten jarraitzeko beharrezkoak diren lege-eskakizunak bete dituela.

Miren Izaskun Landaida Larizgoitia
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria





Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



Manuel Iradier, 36 – Tel.: 945-01.67.00 – Fax: 945-01.67.01 – E-mail: emakunde@euskadi.eus 01005 – Vitoria-Gasteiz